

MENDEKUA IRITSI DA

Aiora Larrañaga

Orio, 13 urte

1. Kapituluua.

Bat-batean, poliziaren kotxeko sirenaren soinu zaratatsuak esnatu zuen. Iker ohetik jaiki zenean, goizeko bederatzi eta erdiak ziren eta ohikoa zen bezala, Institutura berandu iritsiko zen, baina hala ere, batere presarik gabe jantzi eta sukaldera jaitsi zen. Bere ama bertan zegoen, whisky botila edanez. Hau ere egunero ematen zen gauza zen.

– Atzo gauean noiz iritsi zinen etxera? – galdetu zion haserreturik bere amak.

– Eta zu? Ni iritsi nintzenean, oraindik ez zeunden etxean.

– Ume, mukitsu zikin hori, niri ez didak berriro horrela hitz egingo! – esan zion bere amak, ondoren masaileko ederra joaz. PLAST !!!!!

– Orain ere mozkor-mozkor eginik zaude. Non dago aita? Hura ere bere mozkorraldia pasatzen ariko da ohean, ezta?

Bat-batean, bere atzean norbait zegoela konturatu zen. Ez zuen atzera begiratu nahi, baina bazekien horrela izan ezean jipoi handiagoa emango ziola. Orduan, adorez bete eta atzera itzuli zen.

– Zer esan duk? Errepika ezak esan duana! Noski, orain ez haiz ausartzen. Oiloa, oraindik ume puta bat haiz -esan zion bere aitak, ahots bel-durgarriarekin.

– Errepikatzea nahi al duzu...! Mozkorrak eta zeuenkoiak zaretela esan dut, zuen buruez bakarrik arduratzen zarete! Goizeko ordu txikietan bueltatzen zarete etxera mozkor-mozkor eginik, eta hori gutxi balitz, izugarrizko jipoiak ematen dizkiguzue Iñigori eta niri! Ez zarete konturatzen, bi seme dituzuela eta txikienak sei urte dituela! – oihukatu zion Ikerrek bere aitari.

Bere aita hori aditu zuenean, haserre bizian jarri zen. Poltsikoan zuen labana atera eta Ikerri sartzen ahalegindu zen. Labana oso zorrotz zegoen, baina ez zuen lortu, Ikerrek bere eskolako motxila astuna hartu eta korrika aldegin baitzuen etxetik.

Iker Iruñean bizi zen 16 urteko mutila zen, hain zuzen ere Iruñeko auzo baxuetan. Horrelako auzoetan, egunero polizien sirena hotsak, bikote haserretuen oihu amenazanteak, kaleko banden borroka arriskutsuak eta abar entzutea guztiz normala da. Iker, auzo horietako gazte gehienak bezala, kaleko banda bateko partaidea zen. Itxuraz mutil normalaren itxura zuen: begi berdeak zituen, azalez beltzarana zen eta ezkerreko belarrian belarritakoa zuen; ilea ere beltzarana zuen, kiribildua, eta sorbaldak baino pixka bat goraxeago erabiltzen zuen. Ikerrek bera baino gazteagoa zen anaia zeukan. Honek Iñigo zuen izena eta 6 urte zituen. Honek ere begi berdeak zituen, ezkerreko belarrian belarritakoa zuen, azal eta ile beltzaranak zituen, baina ez zuen bere anaia bezain ile luze, honek ere kiribildua zuenarren.

Ikerren eta Iñigoren gurasoak langabezian gera-

tu ziren 3 urte lehenago eta horren ondorioz edaten eta drogak hartzen hasi ziren. Beraientzat eguneroko gauza izaten zen goizeko ordu txikietan esnatu araziak izatea, eta beraien gurasoak kolokaturik edo edanda zeudelako izugarritzko jipoiak jasotzea. Askotan joan behar izaten zuten eskolara edo institutura gorputza ubelduraz, ebakiz... beteta zutela.

2. Kapituluua.

Etxetik korrika irten behar izan ondoren, Instituturako bidean, bere bandako lagun bat aurkitu zuen. Hau ere berandu zihoan Institutura.

– Epa, Iker! – agurtu zuen Josebak.

– Epa, Joseba! Zer, hi ere loak hartu al hau? – galdetu zion Ikerrek ezer gertatu ez balitzaio bezala.

– Bai, neu ere loak hartu nau. Atzoko festan kristoren mozkorra harrapatu nian eta gaur ezin izan nauk jaiki. Gainera, atzoko birren zapore mingotsa oraindik ahoan diat.

Hitz egin eta hitz egin, segitun ailegatu ziren institutura. Ordu horretan, Ikerrek matematikako klasea zuen, Institutu osoko irakasle okerrenarekin: Isidoro irakaslearekin.

Klasera sartu zenean, irakasleak begirada zorrotza bota zion.

– Iker! jadanik nazkaturik nago zure berandu ailegatu behar horrekin, zuzendariarengana joan zaitez! – esan zion Isidoro irakasleak bere ahots berezi baina gogor harekin.

- Zer? Zergatik? Nik nahi dudana egingo dut, inork ez dit esango zer egin behar dudan. Eta guxtiago zuk, irakasle putakume horrek.- erantzun zion garrasika, lehenagotik zuen haserrea kanporatuz.

- Iker, zoaz zuzendariarengana! - oihukatu zion Isidoro irakasleak, eskua altxatu eta bere burua Ikerri zaplasteko bat ez emateko kontrolatzen zuen bitartean. Lehen baino askoz ere haserretuago zegoen.

Irakasleak Iker klasetik bidali zuenean, zuzendariaren bulegora joan beharrean, Arrotzera joan zen. Arrotz, Institututik gertu zegoen billar antzeko bat zen. Hau, sotano batean zegoen. eta eskailera mordoa jaitsi behar zen bertara iristeko. Han ia ez zegoen argirik, eta gainera normalean oso usain arraroa egoten zen, alkohol, tabako, marihuana eta izerdi usaina, dena nahastuta bat eginik. 16 billar zeuden eta barra bat albo batean. Arrotzen inguruko kaleetako banda guztiak elkar-tzen ziren eta horren ondorioz kristoren istiluak muntatzen zituzten. Askotan itxi behar izan zuten, jendea droga trafikatzan ibiltzen zela jabetu zirelako, bertan norbait hil zutelako, borroka gogor bat egon zelako eta abar.

Iker Arrotzera ailegatu zenean, bere bandako buruzagia bertan zegoen. Aritzek 18 urte zituen eta ez zuen institutura joan beharrik. Bera izaeraz zeharo errebeldea zen. Ez zitzaion axola jendeak zer esaten zion edo beregatik zer esaten zuten. Baina bazegoen gauza bat oso arduratzen zuena,

eta hori familia eta lagunak ziren. Asko maite zuen bere familia. Aritz bere ama eta arreba txikiarekin bizi zen, gurasoak aita eta ama banatuta baitzeuden. Hala ere ez zuen bere aitaren inongo faltarik sentitzen, min handia egin baitzien, berari eta bere familiari. Lagunak ere asko estimatzen zituen; ez zen erraza Aritzen lagun egitea, ez baitzion bere konfidantza edozeini ematen. Baina behin bere lagun zinenean beti lagunduko zizun, ez zizun inoiz hutsik egingo. Oso mutil zintzoa, ona eta jatorra zen. Kanpotik itxura hori eduki ez arren.

– Epa, Iker! Zer egiten duk ordu hauetan hemen? Ez al huen institutura joan behar? – esan zion Aritzek.

– Epa, Aritz! Ez, Isidoro irakasleak zuzendariarengana bidali nau, eta ez nuenez zuzendariarengana joateko gogorik, hona etorri nauk.

– Nork? Isidoro irakasleak? Oraindik institutuan al zegok Putakume hori? Gustura akabatuko niake hori oraintxe bertan, bere erruz kurtso bat erreplikatu behar izan nian eta.

– Bai, neuk ere gustora akabatuko niake Putakume hori -gehitu zuen Ikerrek –.

– Beno, beste zerbaitez hitz egiten badiagu hobeto... ezta? Nahi al duk zerbait edan – galdetu zion Aritzek Ikerri.

– Bai, birra bat edango niake.

– Martxando birra bat – oihukatu zuen Aritzek.

– Kepa, atera iezaioke birra fresko-fresko bat.

3. Kapitulua.

Institututik ihes egin zuenetik bost ordu inguru pasa zirenez, jadanik etxera joateko ordua zela pentsatu zuen Ikerrek; ez zekien bere gurasoak etxean egongo ziren, eta horregatik, etxean sartu baino lehenago begiratzea pentsatu zuen.

Etxe aurrera iritsi zenean, kanpotik, ez zen barruan inor zegoen nabaritzen. Orduan barrura sartzea pentsatu zuen. Etxera sartu zenean...

– Ama? Aita? Iñigo? -oihukatu zuen Ikerrek sarrerako atetik burua sartuaz.

– Iker! Hi al haiz? -galdetu zion beldurturik zegoela ematen zuen ume ahots batek.- Iñigo nauk, etorri hadi azkar mesedez!

Iñigoren gelara sartu zenean... Iñigo ohean etzanda zegoen, odolez zikinduta zeuden maindire batzuekin saihetsetan zuen hezurretarainoko ebaki sakona tapatu nahian. Ubeldura ugari ere bazituen, sorbalda eta begiondoak more-more eginik, norbait margo morearekin margotzen ibili balitzaio bezala, eta aurpegian ere ebaki gehiago zituen.

– Iñigo, zer gertatu zaik? Nork egin dik hau? -galdetu zion larrituta eta era berean urduri, Ikerrek.

– Gero esango diat. Baina mesedez... eraman nazak mediku batengana, izugarrizko mina diat eta.

Iñigok esan ziona entzun orduko, Ikerrek, Iñigo bizkarrean hartu eta hiru kale beherago zegoen mediku batengana eraman zuen. Mediku hau

Ikerren eta bere bandakoen laguna zen. Honek sendatzen zizkieten borroka baten ondorengo ebakiak, ubeldurak...

– Kaixo, doktore! -agurtu zuen Ikerrek Arizkorreta Doktorea.

– Kaixo Iker. Zer, orain ere borrokaren batetik al zatozte?

– Ez, nire anaia txikiarekin etorri naiz. Ohikoa den bezala gure gurasoek jipoitu dute, baina hau inoiz baino handiagoa izan da. Saihetsetaraino heltzen zaion ebakia du eta odola galtzen ari da.

– Azkar! Esan iezaiozu barrura sartzeko, okerrago jarri baino lehenago –esan zuen Arizkorreta Doktoreak.

Ikerrek Iñigo sendagilearen kontsultara sartu zuenean, Arizkorreta sendagilea harriturik geratu zen. Ume gaixoak odol mordoa galdu zuen, eta ahal zen azkarren eman beharko zitzaion galdutako odola bueltan. Hori gutxi balitz, ebakia ireki beharko zitzaion, barruan zikin asko zuelako. Baina arazo bat zuen, bere kontsultan ez zuen kirofanorik, eta ospitalera eraman behar izan zuten.

Ospitalean, larrialdietarako kirofanoan sartu zuten eta ahal zen azkarren egin zioten dena.

Operazioa bukatu ziotenean, Iñigo bere gelara eraman zuten. Iker gelara sartu zenean, Iñigok anesthesiaren efektuak zituen, denbora gutxi baitzen kirofanotik atera zutela.

– Iker! hemen al hago? –galdetu zion Iñigok, ia hitzik ateratzen ez zitzaiola.

– Bai, Iñigo, hemen nagok! Lasai, ez nauk hemendik mugituko hi ospitaletik irteten haizen artean –esan zion Ikerrek Iñigori, lasaitu nahian.

– Iker, zergatik guri? Zergatik dizkiagu horrelako gurasoak? Zergatik ez gaituk gure adineko beste edozein bezalakoak? – galdetu zion Iñigok triste, arrazoiak bilatu nahian.

– Iñigo, ez zekiat arrazoia, baina beste gauza bat zekiat. Hik edozertarako edukiko nauk. Arazorik baduk, niri kontatu. Hi lasai egon, beti edukiko nauk hemen edozertarako -esan zion Ikerrek, begietatik ateratzen zitzaizkion malkoak musuzapiarekin lehortuz.

4. Kapituluua.

Aste bete pasa zen Iñigo ospitalean zegoenetik eta medikuak bertatik joateko baimena eman zion.

Iñigo ospitalean egon zen bitartean, Ikerrek oso ondo eta mantso pentsatu zituen gauzak. Eta ondorio batzuetara iritsi zen: ezin zuten horrela askoz gehiago iraun, bestela egunen batean jipoi batez hilko zituzten biak. Baina zer egin? Nora joan? Hori ere asko pentsatu eta gero, berak lapurreta batzuetatik gordeta zuen dirua hartu, moto bat erosi, eta bera eta Iñigo beste hiri batera bizitzera joatea zen bere ideia. Baina beste hiri horretan non bizi? Non lan egin? Hori ere nahiko ongi pentsatuta zuen. Pisu bateko lehenengo bi hilabeteak ordaintzeko adina diru bazuen, eta bi hilabete horietan bizitza ahal den moduan ateratzeko lan

ziztrinen bat bilatzearekin nahiko izango zuen. Baina beste arazo bat zegoen: Iñigok joan nahiko ote zuen etxetik? Galdera horren erantzuna ez zekienez, ospitaletik irten zenean berari galdetzea pentsatu zuen.

– Zer Iñigo, ba al duk etxera joateko gogorik? -galdetu zion Ikerrek, Iñigoren erantzuna ezetza izango zen uste osoan.

– Hik zer pentsatzen duk? Ez diat batere gogorik. Badakik zergatik? Ez diat berriro erdi odol hustuta geratzeko batere ilusiorik -erantzun zion Iñigok ironiaz.

– Barka iezadak, ez nian hi mintzeko asmoz esaten.

– Ez, Iker, ez duk hire errua izan, ni nagok umore txarrez. Iker... hik lehengo egunean edozein mesede egingo hidala esan hidan ezta?

– Bai, ezer nahi al duk? Eska ezak nahi duana, baina ez dadila oso zaila izan.

– Ez, ez duk batere zaila etxean lo egiten duan egunetan egingo al huke nire ohe berean lo? Bestela beldurra emango zidak.

– Noski baietz, ez hadi horretaz ardura, hik nahi duan guztietan egingo diat hire ohe berean lo. Ah, Iñigo! Galdera bat egin behar diat, baina mesedez egia erantzun. Nahi al huke etxetik alde egin eta beste hiri batera joan nirekin? Bizitzera?

– Noski baietz, baina nora? Eta noiz? -galdetu zion Iñigok izugarrizko gogoia erakutsiz.

– Lasai egon hadi, lehenengo diru apur bat gehiago lortu behar diat eta. Orain dudan diruare-

kin moto dezente bat erosteko eta pisu bateko lehenengo hilabeteko alokairua pagatzeko adina badiat; baina diru pixka bat gehiago nahi diat, hila-bete batean lana bilatzen ez badiat ere, pisu batean bizi eta jateko dirua eduki dezagun.

– Ongi duk, baina orain zer egingo diagu? -gal-detu zion Iñigok.

– Orain, ezer gertatu ez balitz bezala egon behar-ko diagu etxean, baina diru nahikoa dugunean handik ospa egingo diagu. Hik normal portatu behar duk, ez dezatela pentsa zerbait “tramutzen” dugunik, eta, oso garrantzitsua, ez iezaiek bestee-tan baino gehiago erantzun, bestela bertan txikitu-ko haute eta. Ulertu al duk?

– Bale, bale, ulertu diat, baina hik gauza bat agindu behar didak. Gauero nirekin batera ohera-tuko haizela eta ez haizela gauetan mozkor-mozkor eginik bueltatuko etxera.

– Lasai egon hadi, Iñigo. Uste diat nire mozkor-kerietako egunak orain dela aste bete pasatu zirela, –esan zion Ikerrek Iñigori lasaitzeko, eta, era bere-an, barrea eragiteko asmotan.

5. Kapitulu.

Etxera ailegatu zirenean, beraien gurasoak etxe-an ziren.

– Zer, non egon zarete egun guzti hauetan? –gal-detu zien bi mutilei beren amak.

– Ospitalean –esan zion Ikerrek bere amari, borde ahotsa jarriaz.

– Ospitalean, zertan? -galdetu zien beraien amak harrituta.

– Zertan? Zertan galdetzen didazu? Zuek biok zuen seme txikienari eman zenioten jipoia ongi sendatzen. Zuengatik izango balitz orain hilik egongo baitzen –oihukatu zion Ikerrek bere amari haserre biziz.

Ikerrek hau esan zuenerako bere ama haserre bizian jarri zen. Belarrietatik kea botatzen zuela ematen zuen. Orduan masaileko bat ematera joan zen, baina Ikerrek saihestea lortu zuen eta korrika aldegin zuen bere gelara Iñigo bertan zegoen, txoko batean beldur-beldur eginik.

– Iñigo, lasai hadi. Beharrezko dituan gauzak maleta batean sartzen hasi hadi. Oraintxe bertan joango gaituk eroetxe honetatik. Hau ezin diat gehiago jasan, –esan zion Ikerrek Iñigori seriotasun handiz.

Agindu eta egin. Ikerrek hori esan orduko, Iñigo bere gauzak maleta batean sartzen hasi zen. Ez zuen gauza handirik sartu: bi plaiiera pare, polar lodi bat, bi txandal eta beste lau manga luzedun niki. Ondoren, Iker ere bere maleta egiten hasi zen. Honek bi galtza bakero, txandal bat, lau manga luzedun niki, polar lodi bat, bota batzuk, plaiiera batzuk, eta, noski, galtzerdiak eta mudak.

– Iñigo, behar duan guztia sartu al duk? –galde-tu zion Ikerrek Iñigori.

– Bai, zergatik galdetzen didak? –erantzun zion Iñigok ezer ahaztu ez balitzaio bezala.

– Orduan, uste diat, etorkizunik gabe geratuko haizela.

– Etorkizunik gabe? Zergatik? Zertaz ari haiz hitz egiten? –galdetu zion Iñigok guztiz nahasturik.

– Zergatik? Jakin nahi duk zergatik geratuko haizen etorkizunik gabe? Gantzontzilorik eramaten ez baduk, hire ugalketa aparatua izoztu egingo zaialako.

Beraien maleta guztiz egitea lortu zutenean, Ikerrek ohar bat utzi zien beraien gurasoei, eta honek horrela zioen:

Kaixo:

Ohar honen bidez, etxetik betirako aldegin dugula esan nahi dizuet. Biok joan gara, Iñigo nirekin etorri baita. Mesedez, ez saiatu bilatzen, alperrik izango baita. Ez gara itzuliko, zuen portaera hobetzen ez baduzue behintzat. Besterik gabe, agur eta noizbait ikusi arte!

Iker Aitor Gomez

Iñigo Mikel Gomez

6. Kapitulumua.

Etxetik ahal zuten azkarren irten eta gero, autobus geltokira joan ziren. Ez baitzekiten Bilborako bi biletek zenbat balioko zuten. Diruz ez zebiltzan oso ondo, baina Ikerri ideia bat bururatu zitzaion.

– Iñigo, orain Arrotzera joango gaituk. Han ez hadi beldurtu, hi beti nire ondoan, mugitu ere egin gabe. Ulertu duk? -galdetu zion Ikerrek Iñigori.

– Bai, bai, baina zenbat denbora egon behar diagu bertan? -galdetu zion Iñigok Ikerri, denbora gutxi pasatzeko esperantzan.

- Lasai, lantxo bat egin... eta segituan diruz gainezka eta Bilbon ondo bizitzeko aukeran egongo gaituk.

Autobus geltokitik irten eta Arrotzera joan ziren. Iñigo oso beldurtuta zegoen, baina bere anaiaren aurrean ausartarena egiteagatik edo, ez zuen ezer esan.

Iluntzea zenez, Arrotz jendez gainezka zegoen. Iker eta Iñigo eskailerak jaitsi eta Ikerren banda-koak zeuden tokirantz abiatu ziren. 6. billarrean zeuden. Billarreko mahai horretara iristeko lokal guztia pasa behar zen. Iñigo txoko guztietara begira pasa zen, eta egia esan denetarik ikusi zuen: bi tipo beste bati labana lepoan jarrita zeudela, beste batzuk jeringilekin jolasean, ia denak edaten eta erretzen. Hau berarentzat berria zen eta harriturik zegoen.

Ikerren bandakoak zeuden tokira ailegatu zirenean.

- Epa Iker! Zer? Zer berri diagu? -esan zion Aritzek -Ah! Epa Iñigo! Barka iezadak, ez haut ikusi. Zer, zer moduz eskolan?

- Hi Aritz, etorri hadi, hirekin hitz egin behar diat eta -esan zion Ikerrek serioski.

- Bai, bai, orain niak. Zertaz hitz egin nahi duk?

- Iñigo, joan hadi besteekin billarrean jolastera, Aritzekin bakarrik hitz egin nahi diat eta -esan zion Ikerrek Iñigori.

- Zer Iker, zertaz hitz egin nahi duk? Garrantzitsua ematen dik. Ia ba mutil, botako al duk, arduratzen hasia negok eta!

– Beno, hasieratik hasiko nauk. Gogoratzen al haiz Iñigori eman zioten jipoiaz? Ba, nazkatuta gaudenez, etxetik joatea pentsatu diagu. Bilbora joateko asmotan gabiltzak, baina arazo bat diagu: dirua falta zaiguk. Lapurretaren bat egiterik edukiko genukeen galdetzen nioan neure buruari. Hik zer pentsatzen duk?

– Egia nahi duk? Lapurreta egingo diagu. Lapurtzen dugun guztia saldu eta zuentzat izango duk den-dena; baina, nik ere zuekin joan ahal ninteekeen galdetzen diat?

– Begira, Aritz, ni ez niak Bilbora istiluetan sartzera. Nik han bizitza normala egin nahi diat. Hik ere hala nahi baduk, ondo, baina banden munduan sartu behar baduk, ez hadi nirekin etorri.

– Ez, ez, lasai egon hadi. Hemeretzi urte dizkiat eta nire bizitza berregin nahiko niake, normal bizi, jende normala bezala. Badakik, lan egin, kaletik normal ibili...

– Ongi duk, orduan hi ere bai. Orain dirua atera beharko diagu Bilbora joateko.

Dirua nondik atera, han non bizi eta beste kontu askori buruz hitz egin ondoren, Aritz eta Iker ondorio batzuetara iritsi ziren: aurreztuta zuten diruerekin bakarrik joango zirela, ez zutela inongo dendatan lapurretarik egingo.

Goizaldeko 6:30 etan hartu zuten Bilbora zihoan autobusa. Autobuseko azkeneko lerroan jarri ziren, han zeudela txoferrak ez zituen ikusten eta.

7. Kapituluua.

Goizeko 8:30 etan iritsi ziren Bilbora. Autobusetik jaitsi, eta lehenengo egin zuten gauza kafetegi batera joatea izan zen, izugarrizko gosea baitzuten.

– Bi kafe taza, txokolate bero bat, hiru hanburgesa handi eta “croissant” batzuk mesedez -eskatu zion Ikerrek edukazio handiz kafetegiko zerbitzariari.

– Bai. Oraintxe bertan ekarriko dizkizuet -erantzun zion zerbitzari zegoen mutil ilehori batek.

– Ei! Aizu! Esango al zenidake hiri honetan alokairuko etxeak non aurki genitzakeen? -galdetu zion Aritzek.

– Bai noski! Zentroan horrelako etxe asko daude, eta gainera prezio onean. Hemen duzue gosaria: bi kafe, txokolate bero bat, hiru hanburgesa handi eta croissant batzuk -esan zion zerbitzariak.

– Zenbat da dena? -galdetu zion Ikerrek.

– Beno, gaurkoagatik ez dizuet kobratuko, oso jatorrak zarete eta gainera ez dut uste dirua gosarrietan gastatzen ibiltzeko egoera ekonomikoan zaudetenik.

Gosaldu eta gero zentro aldera joan ziren.

Kaletik zihoazela, bat-batean “ALOKAIRUAN” jartzen zuen kartel bat ikusi zuten. Pisua ez zen oso polita, baina nahiko merke zirudien. Orduan, minutu bat ere galdu gabe, pisua nolakoa zen eta zenbat balio zuen galdetzera joan ziren.

Handik 15 minutura edifiziotik irten ziren, buru-

makur. Pisua ondo zegoen baina gehiegi balio zuen. Ezin zuten hainbesteko luxurik onartu. Bila eta bila ibili ziren; batean eta bestean galdetu; bat ikusi eta bestea ikusi, baina alferrik, garestiegiak ziren. Asko pentsatu eta gero, Olaskoaga kalean zegoen etxe zahar bat hartzea erabaki zuten. Olaskoaga Bilboko kalerik pobreena zen. Hortxe ibiltzen zen Bilboko jendilaje gutzia.

8. Kapituluua.

Etxea aukeratu eta bertan bizitzen jarri ondoren, Iker eta Aritz lan bila hasi ziren. Iñigoren eskola jadanik aukeratuta zeukaten. Olaskoaga Eskola Publikora joango zen. Hau beraiek bizi ziren auzoko eskola publikoa zen, eta ezertxo ere ordaindu behar ez zenez, horra eramatea pentsatu zuten. Iker eta Aritzek, berriz, ez zuten lanik aurkitzen. Toki guztietan begiratzen zuten, baina alferrik.

Egun asko pasa ziren, baina oraindik Ikerrek ez zuen lanik topatu. Aritzek, ordea, bai. Aritzek modelo agentzia batean egiten zuen lan, egun normal batean kaletik zihoala, modelo agentzia bateko zuzendariak ikusi eta lana eman ziolako. Dezente irabazten zuen, hilean 200.000 pezeta inguru. Hirurak bizitzeko adina.

Egun normal bateko goiz bat zen. Iker sukaldetan zegoen egunkaria irakurtzen. Aritz lanera joana zen eta Iñigo gosaltzen ari zen, eskolara joan behar baitzuen. Bat-batean, atea jo zuten eta Iker ea nor zen ikustera joan zen.

– Kaixo, Iker Aitor Gomez etxean al da? -galde-
tu zion polizi jantzita zegoen gizon bibotedun ba-
tek.

– Bai, neu naiz, zergatik? -erantzun zion Ikerrek
harrituta.

– Iker Aitor Gomez, atxilotuta geratzen zara
Iñigo Mikel Gomez bahitzeagatik. Esango duzun
guztia zure kontra erabili ahalko da. Abokatu bat
eduki dezakezu, eta ordaintzeko dirurik ez baduzu,
ofiziozkoa asignatuko zaizu. Iñigo Mikel Gomez,
beraren gurasoengana itzulia izango da. Besterik
gabe, zu etorri gurekin. Txomin! Har ezak umea!
–esan zion poliziak, eskuburdinak gogorki jartzen
zizkion bitartean.

– Zer? Baina, nola? Hau ez da posible... Askatu!
Aska nazazue! Iritsiko da mendekua, entzun
duzue? Iritsiko da! -oihukatzen zuen Ikerrek, eskai-
leretan behera jaisten zuten bitartean.

Atxilotu ondoren, zuzenean komisaldegira era-
man zuten. Bertan, Arruabarrena agentearekin
hizketan egon zen. Honek mota guztietako galde-
rak egin zizkion, baina alferrik, Ikerrek ez baitzion
erantzuten. Ahoa irekitzen zuen bakoitzean “nire
anaiarengana joan nahi dut” esateko izaten zen, ez
beste ezertarako.

9. Kapituluua.

Iker atxilotu ondoren tribunaletara eraman
zuten, eta bertan errudun hartu ondoren 15 urte-
ko gartzela zigorra ezarri zioten. Berez, 16 urtere-

kin ezin da inor gartzelan sartu, baina Ikerren gurasoek horrela eskatu zioten epaileari.

Handik bi urtera, egunkari batean berri hau azaldu zen.

*GURASO BATZUEK BERAIEN SEMEA
JIPOITU ONDOREN UMEA HIL EGIN DA*

Iñigo Mikel Gomez izeneko 8 urteko haurra hil egin da gaur, bere gurasoek eman dioten jipoiaren ondorioz. Umea bizilagun batek portaleko eskaileteran botata aurkitu zuen, eta ondoren poliziarengana eraman.

Bere gurasoek 50 urteko gartzela zigorra jaso dute.

Umeak esan zuen azkeneko gauza "Iker etortzea nahi dut, mesedez ekarri!" izan omen zen.

Aritz munduko modelorik famatuenetakoa izatera iritsi zen. Lau urte baino lehen Ikerren fidantza ordaindu eta espetxetik ateratzea lortu zuen, baina beranduegi zen jadanik, Iñigo hilik zegoen. Ikerrek gauza bat agindu zion bere buruari: "Hil baino lehen bere anaia hil zuten bi pertsonak akabatuko zituela, berriro gartzelara joan behar bazuen ere."

Eta halaxe egin zuen. Espetxetik irten eta urte batzuetara Joan Antonio Gomez eta bere emazte Ana Maria Eskualde, hau da, bere gurasoak, etxe-ko bainugelan hilik aurkin zituzten, bakoitzak labankada bat zuelarik. Gainera, bainu gelan zegoen lababourreko ispiluan haxe jartzen zuen...

Hau da agindutako mendekua. Iritsi da. Obar-
tarazi zintuztedan.

Ja - ja - ja - ja!!!!!!!!!!!!!!

J.A. Gomez

Iker Aitor Gomez, justiziatik ihesi dabil. Oraindik ez dute aurkitu eta 9 urte pasatu dira hau gertatu zenetik.

Non egongo ote da Iker?